

Euskadiko gazteek indarkeriari buruz duten pertzepzioa



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA **OBSERVATORIO** VASCO
DE LA JUVENTUD

SARRERA

Txosten honetan honako gai hauek lantzen dira: gazteek zenbateraino uste duten indarkeria hedatuta dagoela euskal gizartean eta, zehatzago, gazterian, ingurune hurbiletan indarkeriarik hautematen duten, inoiz liskar bortitzetan parte hartu izan duten edo inoiz edozein motatako indarkeria pairatu izan duten, beren ustez, zein faktorek eragin dezaketen portaera bortitzak izaten eta, amaitzeko, zein arrazoirengatik justifikatuko lukete indarkeriaren erabilera.

Gazteei indarkeria hedatuta dagoela hautematen duten galdetzen zaienean, indarkeria zentzu zabalean hartu da, izan ditzakeen maila guztiak kontuan hartuta, indarkeria mota sotilenetatik, hala nola indarkeria sinbolikoa, batzuetan ikusezina deritzona, adibidez, errespeturik gabeko umorea edo publizitate diskriminatzailea edo estereotipatzailea, edozein pertsona edo talderen aurkakoa, indarkeria mota larrienetara eta esplizituenetara, hala nola sexu-erasoak eta eraso fisikoak.

Txostenean 15 eta 30 urte bitarteko gazteriari dagozkion datu orokorrak aurkezten dira, bai eta gizon eta emakumeen arteko aldeak ere.

METODOLOGIA ETA IKERKETAREN TESTUINGURUA

❖ **Gazteen lagin zabal bati egindako online inkestak**

- 2021eko abenduaren 1 eta 13 bitartean
- 15 eta 30 urte bitarteko 4.918 gazte (3.306 emakume, 1.569 gizon eta 43 ez-binario)
- Datuak haztatu egin dira biztanle gazteen banaketa errealari egokitzeko
- Ikerketaren diseinua eta emaitzen azterketa Gazteen Euskal Behatokiari dagozkio
- Inkestak biltzea eta datubasea kudeatzea Ingartek Consulting S.L. enpresari dagozkio

❖ **Gazteek osatutako eztabaida-taldeak**


- 2021eko abenduaren 14 eta 16 bitartean
- 3 eztabaida-talde eta horietan 16 eta 31 urte bitarteko 23 gaztek parte hartu dute (14 emakumek eta 9 gizonek)
- Diseinua eta emaitzen azterketa Gazteen Euskal Behatokiaren eta Ingartek Consulting S.L. enpresaren artean

❖ **Aurreko testuingurua, 2021eko udako eta udazkenekoa**

- Udan gazteen makrobotelloiak ugariak ziren eta, batzuetan, poliziaren kontrako liskarretan bukatu ziren (adibidez, Donostian eta Gorkizen izandakoak)
- Talde jipoia Zornotzako gazte bati, koman geratu zela jipoia onduz
- Talde jipoia Galiziako gazte homosexual bati, hil zela jipoia onduz
- Eraso sexuarekiko buruzko albisteak

Euskal gizartean indarkeriaren hedapenari buruzko pertzepzioa

Zure iritziz, indarkeria, oro har, zenbateraino dago hedatuta euskal gizartean? (%)




Hamar gaztetik batek uste du indarkeria oso hedatuta dagoela euskal gizartean (% 10,4).

Beste % 49,8k uste du nahiko hedatuta dagoela.

Beste % 36,4k, aldiz, ez dagoela oso hedatuta edo ez dagoela batere hedatuta uste du.

Euskal gizartean indarkeriaren hedapenari buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera

Zure iritziz, indarkeria, oro har, zenbateraino dago hedatuta euskal gizartean? (%)




Indarkeriak gure gizartean duen hedapenari buruzko pertzepzioa ezkorragoa dute emakume gazteek gizon gazteek baino (emakumeen % 13,1ek uste du oso hedatuta dagoela; gizonen kasuan, aldiz, % 7,9k).

Indarkeria nahiko hedatuta dagoela uste dutenen ehunekoak ere handiagoak dira emakumeen artean gizonen artean baino.

Euskal gazterian indarkeriaren hedapenari buruzko pertzepzioa

Eta Euskadiko gazteen artean? (%)



Antzeko ehunekoak uste du indarkeria oso hedatuta dagoela Euskadiko gazterian (% 12,3k).


Eta gazteen erdiak uste du nahiko hedatuta dagoela (% 52,9).

Hiru gaztetik baten ustez, indarkeria ez dago oso hedatuta edo ez dago batere hedatuta euskal gazterian (% 31,7).

Euskal gazterian indarkeriaren hedapenari buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera




Eta Euskadiko gazteen artean? (%)



Berriro ere, ikus daiteke emakumeek gizonak baino sentzibilitate handiagoa dutela indarkeriaren inguruan; nahiz eta gazterian indarkeria oso hedatuta dagoela uste duten emakume eta gizon gazteen portzentajetan alde handirik ez dagoen, nahiko hedatuta dagoela uste dutenen portzentajei erreparatuz gero, alde nabarmenak ikusten dira.

Hainbat motibaziotako indarkeriak duen hedapenari buruzko pertzepzioa

Zehatzago, zure ustez, zenbateraino daude hedatuta Euskadiko gazteen artean honelako oinarriak dituzten indarkeria-motak? (%)




Gazteen laurden batek hautematen du emakumeen aurkako indarkeria oso hedatuta dagoela gazteen artean (% 24,1ek). Eta beste % 22,2k uste du indarkeria homofoboa oso hedatuta dagoela. Bestetik, % 16,8k uste du indarkeria arrazista oso hedatuta dagoela gazteen artean.

Hamar gaztetik batek soilik uste du indarkeria politikoa oso hedatuta dagoela gazteen artean (% 11,0).

Eta gutxiago dira indarkeria erlijiosoa oso hedatuta dagoela uste dutenak (% 3,7).

Hainbat motibaziotako indarkeriak duen hedapenari buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera

Zehatzago, zure ustez, zenbateraino daude hedatuta Euskadiko gazteen artean honelako oinarriak dituzten indarkeria-motak? (oso hedatuta daudela uste dutenen %)




Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan azaldu dute honelako indarkeria-motak oso hedatuta daudela gazteen artean.

Hiru emakumetik batek hautematen du emakumeen aurkako indarkeria oso hedatuta dagoela gazteen artean; izan ere, emakumeak oso sentsibilizatuta daude emakumeen aurkako hainbat indarkeria motarekin, genero-desberdintasunekin eta mikromatxismoekin.

Ingurune pertsonalean portaera bortitzak hautematea

Zure ingurune pertsonalari dagokionez, zein neurritan ikusten dituzu portaera oldarkorrak edo bortitzak zure bizitzako eremu hauetako bakoitzean? (%)




* Ikasle gazteen pertzepzioa


** Lan egiten duten gazteen pertzepzioa

Gazteek portaera oldarkor gehiago hautematen dituzte aisialdi-inguruneetan, beste inguruneetan baino (gazteen % 6,2k horrelako portaera asko ikusten ditu joaten den aisialdi-inguruneetan).

Ingurune pertsonalean portaera bortitzak hautematea, sexuaren arabera



Zure ingurune pertsonalari dagokionez, zein neurritan ikusten dituzu portaera oldarkorrak edo bortitzak zure bizitzako eremu hauetako bakoitzean?(portaera asko hautematen dituztenen %)



* Ikasle gazteen pertzepzioa

** Lan egiten duten gazteen pertzepzioa

Beren ingurune hurbiletan portaera oldarkor asko hautematen dituzten emakume eta gizon gazteen arteko aldeak txikiak dira.

Ingurune pertsonaletan portaera oldarkor asko ikusten dituztenen portzentajeak % 10en azpitik daude kasu guztietan.

Tratu txar fisiko edo emozionalen egoeraren bat inoiz jasan duten gazteak

Sarritan erasoez, tratu txarrez edo bestelako indarkeriaz hitz egiten da. Adieraz dezakezu ondorengo egoeretako baten biktima izan zaren ala ez? (%)



Tratu txar emozionalak edo psikologikoak fisikoak baino ohikoagoak dira.

Eskola-eremua da aipatuena, noizbait tratu txarrak bizi izan dituztela dioten gazteen artean.

Edozelan ere, nabarmendu behar da portzentaje horiek bizitzaren zehar eta ez, nahitaez, egungo unean, bizi izandako egoerak biltzen dituztela.

Tratu txar fisiko edo emozionalen egoeraren bat inoiz jasan duten gazteak, sexuaren arabera

Sarritan erasoez, tratu txarrez edo bestelako indarkeriaz hitz egiten da. Adieraz dezakezu ondorengo egoeretako baten biktima izan zaren ala ez? (%)




Emakumeek gizonak baino neurri handiagoan diote tratu txar emozional motaren bat jasan dutela inoiz eta, aitzitik, gizonak baino gutxiago diote eraso fisikoa jasan dituztela beren bizitzan.

Edozelan ere, ikasketa-zentroan ikaskideek emandako tratu txar emozionalak dira, bai emakume gazteek bai gizon gazteek, gehien aipatu duten bizi izandako eraso mota.

Liskar bortizetan inoiz parte hartu duten gazteak

Agian, zure bizitzako momenturen batean aktiboki parte hartu duzu indarkeria motaren batean. Adierazi, mesedez, egoera hauetan parte hartu duzun ala ez.(%)




Aipatutako egoeren artean, lagunekin edo kideekin liskarrak izatea da gazteek, beren bizitzaren zehar, noizbait aktiboki partu hartu izan dutela gehien aipatu duten egoera bortitza.

Berriro ere argitu behar da, bizitzan zehar, edozein unetan izandako egoerak neurtzen ari garela eta ez egungo unean izandakoak.

Liskar bortizetan inoiz parte hartu duten gazteak, sexuaren arabera


Agian, zure bizitzako momenturen batean aktiboki parte hartu duzu indarkeria motaren batean. Adierazi, mesedez, egoera hauetan parte hartu duzun ala ez.(%)




Oro har, gizon gazteek emakume gazteek baino neurri handiagoan diote noizbait parte hartu izan dutela proposatutako liskar bortizetan.

Hala ere, emakumeek gizonek baino gehiago adierazi dute noizbat liskar bortizak izan dituztela gurasoekin eta bikotekidearekin.

Indarkeriazko portaeretan eragina izan dezaketen faktoreei buruzko iritzia



Eta, zure ustez, zein neurritan eragin dezake ondoko alderdi bakoitzak gazteen indarkeriazko portaeran? (%)




Gazteen iritziz, portaera bortitzak izaten eragin handiena duen faktorea alkohola eta drogak kontsumitzea da. (% 52,7k uste du asko eragin dezakeela).

Pertsona bizi den inguruneak edo dituen lagunak, bai eta tratu txar fisikoak edo psikologikoak bizi izanak ere, eragin handia izan dezakete portaera bortitzetan, gazteen %30en baino gehiagoren iritziz.

Hau da, gazteen ustez, eragin handiagoa dute pertsonaren bizipenek, bere izaerak baino.

Indarkeriazko portaeretan eragina izan dezaketen faktoreei buruzko iritzia, sexuaren arabera

Eta, zure ustez, zein neurritan eragin dezake ondoko alderdi bakoitzak gazteen indarkeriazko portaeran? (asko eragin dezaketela uste dutenen %)



Bai gizon bai emakume gazteen iritziz, portaera bortitzak izateko erabakigarriena izan daitekeen faktorea alkohola eta/edo drogak kontsumitzea da.

Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan uste dute tratu txar fisiko edo psikologikoak jasan izanak asko eragin dezaketela gerora portaera bortitzak izaten.

Indarkeria erabiltzea justifikatuko luketen arrazoiak

Zein egoeratan justifikatuko zenuke indarkeria erabiltzea? (%)




Gazte gehienek justifikatu lukete indarkeria erabiltzea defendatzeko balitz.

Gutxi dira indarkeria protesta- edo errebindikazio-ekintzetan erabiltzea edo zigortzeko erabiltzea defendatuko luketen pertsona gazteak.

Indarkeria erabiltzea justifikatuko luketen arrazoiak, sexuaren arabera

Zein egoeratan justifikatuko zenuke indarkeria erabiltzea? (%)



Nahiz eta gutxi izan hori diotenak, gizonek emakumeek baino gehiago justifikatuko lukete indarkeria zigor-neurri gisa erabiltzea (gizonen % 11,4k eta emakumeen % 5,5ek). Oro har, gizonek emakumeek baino neurri handiagoan defendatuko lukete indarkeriaren erabilera planteatutako egoera guztietan.

INDARKERIAREN HEDAPENARI BURUZKO PERTZEPZIOAREN INGURUKOAK

Euskadiko hamar gaztetik batek uste du indarkeria oso hedatuta dagoela euskal gizartean (% 10,4) eta antzeko portzentaje batek, %12,3k, uste du indarkeria oso hedatuta dagoela gazteen artean. Gazteen iritziz, indarkeriaren hedapena antzekoa da gazterian eta gizarte orokorrean.

Indarkeria-mota zehatzei buruz galdetzen denean, argi geratzen da gazteek emakumeen aurkako indarkeriarekin eta indarkeria homofoboarekin duten sentsibilitate berezia. Gazteen % 24,1ek uste du emakumeen aurkako indarkeria oso hedatuta dagoela euskal gazterian. % 22,2k uste du indarkeria homofoboa oso hedatuta dagoela eta %16,8ren iritziz indarkeria arrazista oso hedatuta dagoela.

Hamar gaztetik batek soilik uste du indarkeria politikoa oso hedatuta dagoela gazterian (% 11,0); izan ere, gazteek uste dute Euskadik gaur egun bizi duen egoera politikoa oso desberdina dela orain dela urte batzuk izandakoarekin konparatuz gero.

Emakume gazteek gizon gazteek baino neurri handiagoan hautematen dute indarkeriaren hedapena, indarkeria mota guztiak kontuan hartuta.

INDARKERIAREN BIZIPEN PERTSONALAREN INGURUKOAK

Gazteen % 6,2k adierazi du joera bortitz asko hautematen dituela joaten den aisialdi-inguruneetan (plazak, parkeak, tabernak, diskotekak eta abar) eta % 3,0k dio horrelako portaera oldarkorrek sarritan ikusten dituela bizi den ingurunean, hau da, bere kalean, auzoan edo herrian. Bestetik, ikasleen % 2,0k esan du portaera bortitz asko ikusten dituela bere ikasketa-zentroan eta lanean ari den gazteriaren % 2,2k gauza bera esan du bere lantokiari buruz.

Ikaskideek eskola-ingurunean tratu txar psikologikoak ematea da portaera bortitz ohikoena eta gazteen % 45,6k esan du beren bizitzan zehar noizbait jasan izan duela.

Oro har, gizon gazteek emakumeek baino eraso fisiko gehiago jasaten dituzte eta emakumeek, aldiz, tratu txar psikologiko gehiago.

Eta, liskar bortitzetan parte hartzen dutenak gutxi badira ere, gehiago izaten dira gizonak, emakumeak baino. Liskar bortitz horien artean, lagunekin edo ikaskideekin izatea da ohikoena eta horretan gizonen parte hartzea emakumeena baino handiagoa da (% 21,5 eta %12,5, hurrenez hurren).

EMAITZA ESANGURATSUENAK

INDARKERIAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN FAKTOREI BURUZKO IRITZIAREN ETA INDARKERIA ERABILTZEA JUSTIFIKATZEAREN INGURUKOAK

Gazteen erdiak (% 52,7k) uste du alkohola eta/edo drogak kontsumitzeak asko eragin dezakeela gazteek portaera bortitzak izateko.

% 41,5en ustez, pertsona bizi den inguruneak ere eragin handia izan dezake indarkeriaz jokatzeko orduan eta beste % 34,4ren iritziz, lagunek funtsezko papera jokatzen dute gai honetan.

Tratu txar fisiko edo psikologikoak jasan izanak asko eragin dezakeela geroago portaera bortitzak izateko uste dutenen portzentajeak ere % 30etik gora daude.

Baina egoera politikoak eragin handia izan dezakeela uste duten gazteak % 13,1 dira. Proposatutako hamar faktoretatik, hau da, gazteen iritziz, portaera bortitzak izateko gutxien eragiten duena.

Indarkeria erabiltzea gehienek justifikatuko lukete defendatzeko balitz (% 70etik gorako portzentajetan), baina ez protestatzeko edo zigortzeko erabiltzen bada (% 13,2k eta % 8,5ek, hurrenez hurren). Gizonek emakumeek baino neurri handixeagoan justifikatuko lukete indarkeria erabiltzea prosatutako egoera guztietan.

GAZTEEN HAUSNARKETAK

Eztabaida-taldeetan dagoen pertzepzio orokorra da indarkeriazko gizarte batean bizi garela, non mezu bortitzak transmititzen diren etengabe, batez ere komunikabideen bidez, eta horiek, gainera, diskurtsoak eta eztabaidak polarizatzeko joera dutela. Indarkeria matxistari eta sare sozialetako gorroto-mezuei buruzko bat-bateko aipamenak ere ugariak izan dira.

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten eta gai hauei buruz batera hausnartu duten gazteek nabarmendu dute **indarkeria psikologikoak** presentzia handia duela gizartean eta garrantzi berezia duela eskolaren ingurunean eta bikote-harremanetan.

Gazteen ustez, indarkeriak eragile anplifikatzailea aurkitzen du teknologian, eta bereziki azpimarratzen dute **sare sozialek eta komunikabideek** polarizazio- eta gorroto-tresna gisa jarduten dutela. Polarizazio hori indarkeria sustatzeko haztegitzat hartzen da, indarkeria fisikoa eragin baitezake edo ez, baina, nolana ere, indarkeria normalizatzeko ingurune bat sortzen du, eta horrek zaildu egiten du jokabide batzuk indarkeriazkotzat hartzea.

Eztabaida-taldeetan azpimarratzen da gaur egun kontzientzia handiagoa dagoela indarkeria-jarreretik, eta ikusgarritasun handiagoa; horrek ez du esan nahi, nahitaez, indarkeria gehiago dagoenik, baizik eta gehiago ikusarazten dela eta, aldi berean, arbuio handiagoa eta tolerantzia txikiagoa dagoela gizartean, oro har, eta gazterian, bereziki, indarkeriaren adierazpen desberdinekiko.

ONDORIOAK

Gazteak gero eta sentsibilizatuago daude indarkeriaren aurrean, eta ez dituzte onartzen eta justifikatzen orain dela urte batzuk ohikoak izateagatik normaltzat hartzen ziren portaera batzuk.



Ilido horretan, portaera jakin batzuek tratu txar emozionala dakartela aitortzen da.

Indarkeriara jotzea bakarrik justifikatuko litzateke defendatzeko bada; ez protesta, aldarrikapen edo zigor tresna gisa.

Hala ere, gazteen ustez, gaur egungo gizartean mezu bortitzak etengabe azaltzen dira, batez ere komunikabideetan.

Gazteak mugitzen eta sozializatzen diren sare sozialak ere gorroto-diskurtsoak hedatzeko eta zabaltzeko erabil daitezkeen tresna gisa ikusten dira, anonimotasuna baliatuz.


Emakume gazteak, bereziki, oso sentsibilizatuta daude genero-indarkeriarekin (beste azterlan batzuetan ikusten da hori dela beren kezka nagusietako bat), eta, hedaduraz, gizon gazteek baino sentsibilitate handiagoa erakusten dute indarkeriaren beste modu edo adierazpen batzuekiko.



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA **OBSERVATORIO** VASCO
DE LA JUVENTUD



***EUROPEAN
YEAR OF
YOUTH***



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA **OBSERVATORIO** VASCO
DE LA JUVENTUD